



BERRIAK

Kontaktua:
Prentsa Bulegoa
UPV/EHU

Harremanetarako datuak:
komunikazioa@ehu.es
(+34) 946012065



2009/9/21

Errore sintaktikoak detektatzeko eta zuzentzeko Saroi izeneko sistema berria garatu du UPV/EHUko ikertzaile batek

Saroi tresna orokorra da, erroreen tratamendua egiteko ez ezik, analisi-zuhaitzetako egituren gaineko kontsultak egiteko eta zuhaitz horietan egitura linguistikoak bilatzeko balio duena.

Errore sintaktikoak detektatzeko eta zuzentzeko dauden tresnen analisia egin du UPV/EHUko ikertzaile batek bere doktore-tesian. Testuinguru zabaleko erroreak detektatzeko —adibidez, komunztadura-erroreak— esaldiaren analisi-zuhaitza arakatzea beharrezkoa da. Horretarako tresna aproposik ez du aurkitu ikertzaileak, eta, horregatik, Saroi tresna sortu du. Saroi errore sintaktikoen tratamendua egiten du, eta, gainera, analisi-zuhaitzen egituren gaineko kontsultak egiteko eta zuhaitz horietan egitura linguistikoak bilatzeko ere balio du.

Saroi tresna erabilerraza eta malgua da, eta maila desberdinetako hizkuntza-ezaugarriekin lan egiteko gai da —morfologia, morfosintaxia, sintaxia, etab.—. Egilearen esanetan, hizkuntzalaritzarako lan-tresna egokia eta erabilgarria izan daiteke.

Tesiaren egilea eta Saroiaren sortzailea Maite Oronoz Anchordoqui da, eta bere lana Euskarazko errore sintaktikoak detektatzeko eta zuzentzeko baliabideen garapena: datak, postposizio-lokuzioak eta komunztadura izenburupean aurkeztu du. Ikertzailearen iritziz, euskararen egoera dela eta —estandarizazio-prozesuan dago, aberatsa da euskalkiei dagokionez, eta erdararen indartsuek inguratzen dute— ohikoa da erabiltzaileek Euskaltzaindiaren arauetatik aldentzen diren hizkuntza-egiturak erabiltzea. Egitura zuzenetatik edo arauetatik desbideratzen diren egitura horiei errore deitu die tesiaren egileak.

Komunztadura-erroreak

Datetan, postposizio-lokuzioetan eta, batez ere, subjektu, objektu eta zehar-objektu funtzioa betetzen duten osagaien eta aditzaren arteko komunztaduran gertatzen diren erroreak detektatu ditu ikertzaileak ikerketa-lanean.

Errore horien bila corpus erroredunak zein zuzenak automatikoki analizatzeko, UPV/EHUko Informatika Fakultateko IXA taldearen analisi sintaktikorako prozesua erabili du Maite Oronozek, eta informazio linguistikoa adierazteko, berriz, XML bidezko oharpen-sarea.

Erroreak detektatzeko eta zuzentzeko erabiltzen diren teknikei gainbegiratu zabala eman ondoren, hizkuntza-ezagutzan oinarritutako teknikak erabiltzea erabaki du Oronozek. Hala, testuinguru lokaletan —segidan dauden bospasei hitzeko eremuetan— gertatzen diren erroreak detektatzeko eta zuzentzeko, hizkuntzaren tratamendu automatikoko bi tresna ezagun erabili ditu: Xerox Finite State Tool (XFST), datetako erroreak lantzeko, eta Murriztapen Gramatika (MG), postposizio-lokuzioen erabilera okerrak tratatzeko.

Egileari buruz

Maite Oronoz Anchordoqui (Hondarribia, 1972) Informatikan lizentziatua da. IXA taldeko ikertzailea da 1996az geroztik, eta UPV/EHUko Informatika Fakultateko irakasle laguna da 2001etik hona. Bere lana UPV/EHUko Informatika Fakultateko Lengoaia eta Sistema Informatikoak sailako Arantza Díaz de Illaraza eta Koldo Gojenola irakasleen zuzendaritzapean egin du.

Interneteko helbidea

www.ehu.es

Informazio osagarria

[Irudiak](#)

Webgune honetako edukiak ezin dira erabili baimenik gabe.
Copyright © 2007 Elhuyar Fundazioa
basqueresearch@elhuyar.com